



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2017ko martxoaren 23an Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-20:00

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Miren Azkarate_EAJ-PNV (2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria)
Nerea Txapartegi_EH BILDU
Jon Insausti_EAJ

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

Dani Goñi_BAGERA ELKARTEA
Oier Basurko-BATZEN
Josune Otxotorena_BERRITZEGUNEA
Sara Gonzalez_ SAN SEBASTIAN SHOPSSeko ORDEZKARIA
Antonio Casado_EHU
Mikel Aiestaran_GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA
Andoni Iraola_REALA
Ander Aizpurua_KUTXABANK
Ramon Etxezarreta
Felipe Juaristi

Euskara Zerbitzuaren langileak:

Edurne Otamendi (Zerbitzu burua)
Alex Aisa (Atal burua)

EZ ZIREN BERTARATU:

BIZARRAIN ELKARTEko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)
URTXINTXA ko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)
AEKko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)
PSE-EEko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)
IRABAZIko ORDEZKARIA
PPko ORDEZKARIA
ULIAKO AUZO ELKARTEko ORDEZKARIA
LABeko ORDEZKARIA
LABORAL KUTXAKo ORDEZKARIA



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko akta onartu da.

2.-Batzorde Iraunkorrak proposatutako urteko bileren egutegiaren berri ematea

Kontseilu Sektorialak

- 2017ko martxoaren 23an, 18:00etan
- 2017ko ekainaren 15ean, 18:00etan
- 2017ko azaroaren 16an, 18:00etan

Batzorde Iraunkorrak

- 2017ko ekainaren 1ean, 18:00etan
- 2017ko azaroaren 2an, 18:00etan

3.-Donostia Lagunkoia egitasmoa aurkeztea

Eva Salaberria udal teknikaria etorri da "Donostia Lagunkoia. Hiri plana" egitasmoa aurkeztera. Donostiako biztanleria gero eta zaharragoa da eta horrek erronkak eta aukerak eskaintzen dizkio gizarteari. Hori dela eta, Donostiak 2009an bat egin zuen Osasunaren Mundu Erakundeak sustatutako "Lagunkoia" mugimenduarekin eta Donostia Lagunkoia egitasmoa sortu zuen.

Egitasmo honen helburua hiriaren izaera lagunkoia hobetzea da, eta horrekin, adineko pertsonen eta Donostiako gizarte osoaren bizi-kalitatea hobetzea, komunitatean parte hartzeko prozesuak sortuz eta adinekoek herritarren bizitzan duten ahalmena baliatuz.

Eva Salaberriak datu bat eman du: 2026an Gipuzkoako biztanleen erdiak 50 urte baino gehiago izango ditu. Etorkizunean beraz, adinekoak ugari izango dira eta beraien profila ere desberdina izango da.

Jarraian Donostia Lagunkoia abian jarri duen planaren lan-ildoak eta helburuak azaldu ditu. Planak urteko ekintza planak ditu bere baitan eta aurtengorako aurreikusita dagoen ekintzetako bat Donostia Lagunkoia Udalaren kontseilu sektorialetan aurkeztea dela azaldu du.

Euskararen Kontseilu Sektorialari dagokionez, Salaberriak bi galdera planteatu dizkie bertaratutakoei:

1-Biztanleriaren zahartzeak euskararen normalizazio politikari (garatu beharreko plangintzei) erronka edo aukera berriak ekartzen al dizkio?

2-Donostia Lagunkoia hiri-plana tresna lagungarria izan al daiteke erronka/aukera horiei aurre egiteko?

Galdera horiek mahai gainean utzi ditu Salaberriak eta Euskararen Kontseilu Sektorialak alor honetan sakontzeko interesa badu elkarlanerako prest azaldu da.

EHUko ordezkariak adierazi du Unibertsitateari dagokionez, oso jende aktiboa dagoela "Esperientzia gelak" izeneko programetan eta horiek kontuan hartzea interesgarria izan



daitekeela. Eva Salaberriak erantzun dio dagoeneko harremanetan daudela bertako arduradunarekin.

4.-2017ko ekintza plana aurkeztea

Lehendakariak 2017ko ekintza plana aurkeztu du, esparruz esparruko neurriak betetzeko abian jarriko diren ekintzak aurkeztuz eta esparru bakoitzean bideratuko den diru kopurua adieraziz.

EHBilduko ordezkariak hainbat galdera egin ditu aurkeztutakoaren gainean:

Parketarrak ekimenean 0-5 urtekoentzat dela adierazten dela adierazi du eta aldaketak ote dauden jakin nahi du.

Euskara Zerbitzuko buruak adierazi du ez dagoela aldaketarik eta akats bat dagoela banatutako dokumentazioan. 3-5 urteko haur eta familientzat antolatzen dela batetik eta 6-9 urte bitarteko haurrentzat bestetik.

Bestalde, Ekologia eta Soziolinguistika klusterraren Hizkuntza aktibazioa proiektuen gaineko azalpen gehiago eskatu ditu, egitasmoak ez baititu ezagutzen.

Ekologuari dagokionez, Euskara Zerbitzuko buruak azaldu du duela bi urte abian jarri zela modu pilotuan DBH eta Batxillergoko ikasleentzat. Gazte horiek Tabakalerara joaten dira Ekologia izeneko jokoan parte hartzera. Karta joko honek hizkuntza ekologia du oinarri (hizkuntza guztien iraunkortasuna oinarri hartzen da) eta jokoaren bitartez, hizkuntzen gainean hausnartzea eta iritziak partekatzea lortzen da batetik eta hizkuntza gutxituen aldeko jarrerak sustatzen dira bestetik.

Lehenengo saioaren balorazioa ona izan zen eta iazko azaroaren bukaeran berriro antolatu zen 3 egunez. Bertan Donostiako 7 ikastetxetako (Zubiri, Luberrri, Easo, Nazaret, Elizaran, Summa eta Zurriola) ia 300 gaztek (16-20 urte bitartekoak) parte hartu zuten. Gainera, EHUKo Jone Miren Hernandez eta Margaret Bullett irakasleen gidaritzapean, Antropologia graduak hainbat ikasleek prozesu osoan parte hartu zuten eta gazteen iritzien gaineko ikerketa lan bat egin berri dute. Datorren urtean egitasmoarekin jarraitzeko asmoa dago.

Soziolinguistika Klusterraren hizkuntza aktibazio proiektuari dagokionez, zerbitzu buruak adierazi du lantalde bat sortu dela hizkuntzaren aktibazioaren gainean dauden hainbat proiektu (Emakumeen Mundu martxa, Astra, Egiako ereduak) aztertzeko. Egitasmo horien gakoak identifikatzea, oinarri teoriko bat sortzea eta hori ardatz hartuta hainbat prozesu abian jartzea, alegia, esperimentatzea da asmoa.

Kutxabankeko ordezkariak galdetu du horrek zerikusirik ote duen Gipuzkoako Foru Aldundia aurrera eramaten ari den "Jendaurrean erabili" egitasmoarekin.

Euskara Zerbitzuko buruak argitu du "Jendaurrean erabili" egitasmoa gehiago dagoela zuzenduta jendaurreko euskararen erabilera nolakoa izan behar duen lantzerantz eta euskaraz bakarrik egin daitezkeen ekitaldiak identifikatu eta horiek bultzatzera. Soziolinguistika Klusterrarekin eta hainbat erakunderekin, Donostiako Udala barne, ari da garatzen proiektua.

Batzeneko ordezkariak jakin nahi du zertan datzan Berritzegunearekin egiten den koordinazioa.

Euskara Zerbitzuko buruak azaldu du zerbitzuko teknikari batek harreman zuzena duela Berritzegunearekin eta baita hiriko ikastetxeekin ere, batez ere Hizkuntza Normalkuntza Plana duten ikastetxeekin (23).



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Berritzeguneko ordezkariak gaineratu du Euskara Zerbitzua eta Berritzegunearen arteko harremana estua dela oso eta hainbat egitasmo martxan daudela koordinazio horri esker: Ekolinguia bera, ikastetxetako Begiraleen formakuntza saioak, Irakurritz Gozatu ekimena, Euskararen Eguna eta abar.

Bagera elkartearen ordezkaria kezkatuta azaldu da gurasoen euskara erabilerarekin, beraien artean eta seme-alabekin zenbaitetan gaztelaniaz aritzeko ohitura baitute. Etxeko hizkuntza ere gaztelania dute zenbaitetan. Horri aurre egiteko zerbaiten premia dagoela adierazi du.

Euskara Zerbitzuko buruak erantzun du eremu pribatuan eragitea dela zailena. Hala ere, gai hori jorratzeko hitzaldiak sarritan eskaini izan dituela Euskara Zerbitzuak baina guraso oso gutxi inguratzen dela bertara. Hori dela eta, bi lan-ildo berri zabaltu dituzte:

Batetik, Euskara Zerbitzuaren ekimenez, euskaltegietan erabiltzeko unitate didaktikoa sortu da Ebete eta euskaltegien artean. Gurasoentzat antolatzen diren xede bereziko ikastaroek harrera ona izaten dute, guraso asko joaten da, eta ikastaro horietan gurasoak sentsibilizatzeko, oinarri soziolinguistikoak emateko, gurasoei hizkuntzarekin lotutako gomendioak emateko eta abar sortu da unitate didaktiko hori. Horretarako, euskaltegietako irakasleek ere berezko formazioa jaso dute.

Bestetik, Jaime Altunak antolatutako hitzaldi batean erabilitako hainbat kontzeptu ezagutzera emateko asmoa dago. Bideo-zatiak pildorak) eta bestelako euskarriak prestatzeko asmoa dago 2017an.

5.-Hizkuntzen erabilera jarraibideen proposamena zertan den azaltzea

Euskara Zerbitzuaren buruak behin-behineko diseinuak banatu ditu eta hasierako fasean euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dela azaldu du (Paper euskarrian eta weberako). Banaketa Donostiako Udaletxean, Udalaren erakunde autonomoetan, Udalaren sozietate publikoetan eta Udalak eta beste erakunde publikoek partekaturiko erakundeetan egingo da. Horrez gain, entitate pribatuetan (entitate finantzarioak, merkataritza kate handiak) eta merkataritza eta ostalaritza elkarte eta elkargoetan, eta Donostiaz gaindiko erakunde publikoetan (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Estatuko ordezkariak) ere banatuko da. Bilerak egitea aurreikusten da. Eskuorria Aste Santuaren ostean zabaltzeko moduan egongo da.

Bilduko ordezkariari bidalketen ostean bilerak egitea beharrezkoa iruditzen zaio eta baita zabalkundean inbertitzea ere.

Zerbitzuaren buruak ziurtatu du proiektzio handiko erakundeetako ordezkariarekin bilerak egingo direla (Kursaal, Tabakalera, Donostiako Sustapena, eta abar). Donostia Turismo bere hizkuntza jarraibideak lantzen ari dela eta dokumentu hau oinarritzat hartu duela gaineratu du. Bestalde, aurrerago proposamena frantsesez eta ingelesez ere argitaratuko dela adierazi du.

EHUko ordezkariak azaldu du unibertsitateak landuta duela jarraibideen alor hori eta osagarriak direla dio. Alde horretatik, interesgarria izan daiteke EHUrena ezagutzea.

Lehendakariak azkenik, Plazara Goaz euskara elkarteak eta Intxaurrendoko beste zenbait eragilek antolatutako "Baietz 20 ordu euskaraz Intxaurrendon" egitasmoaren berri eman du. Nabarmendu nahi izan du egitasmoaren sustatzaileek Udal talde guztien bozeramaileekin bilera egin zutela eta horren ostean guztien babesa jaso duela ekimenak.



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da 20:00etan.